

AHOZKOTASUNA ETA HEZKUNTZA: AHOZKOTASUNA LANTZEKO MATERIALAK GARATZEA



Ibarluzea Santisteban, Miren
Labayru Ikastegia - Herri Ondarea atala

Ahoa bete hots jardunaldietan parte hartzeko gonbitari baiezkoa emateko arrazoa ez dator ezelan ere bertsolaritzaren esparruan aritu izanagatik edo hizlarien sexua edo jatorria orekatu beharragatik, ezpada azken urteotan lanbidez suertatu zaidan egitekoagatik, hots, Labayru Ikastegian garatutako material didaktikoan dagokidan parte-hartzeagatik.

Labayru Ikastegiaren helburu nagusia Euskal Herriaren kultur balioak garatu eta eguneratzearen aldeko izango diren zereginiei ekin eta zerbitzuak eskaintzea denez gero, euskal kulturaren ondarea berreskuratu eta berriro gizarteratzeko lanean dihardu joan diren 30 urteotan (1977tik). Horretarako hainbat arlo landu izan ditu: ikerketa, irakaskuntza, itzulpengintza, herri-ondarearen bilketa, euskararen erabileraren normalizazio planak, etnografia... Bada, bildutako material etnografikoa gizarteratzeko planaren barruan, ahazkotasunarekin lotutako lanen artean, esaterako, ezagun dira Laratz sortako liburuetan eredu zahar erdi galduak berreskuratzeaz gainerako berriemaileei zuzenean batutako balada, koplak, ipuin eta gainerako ahazko generoen agerpenak. Egitasmo bereziak ere egin izan dira, batzuk aipatzearen, *Katuen testamentua*, *Urte sasoiak* (urte sasoiaren inguruan kaleratutako bideo, CD eta liburuxka bilduma) eta herri-ipuinen bilduma (ariketa eta guzti ateratzen diren bizkaierazko ipuinak). Horiek guztiak, noski, aplikagarriak dira hezkuntza sisteman, baina, beharbada, hezkuntzari lotuago edo, behintzat, hezkuntzarako beren-beregi sortutako material berriak ere argitaratu ditu berriki Labayru Ikastegiaren Herri Ondarea atalak. Eta, hain zuzen ere, horiez arituko gara aurrerago aurkezpen honetan.

Gisa honetako jardunaldietan ahazkotasunaren funtsezkotasunaz ohartaraztea beha-

rezkoa ez den arren –alferrik geundeke hemen bestela– sarrera gisa, gogoetatxo bat egingo dugu, ahozko jardunaren garrantzia gogora ekartzeko. Ahozkotasuna kulturaren transmisio bide izan da mendeetan. Hala izan da hizkuntza idatzi ez den artean, gurean ez eze beste kulturetan ere. Horra hor ahozkotasunaren oinarrietako bat, hortaz: kulturaren transmisioa. Horrez gainera, ahozkotasunak izan du bestelako eraginik ere: literatur sistemen sorkuntzan, esaterako, ahozkotasuna baliatu izan da. Literatur sistemak sortzeko, testuak pilatzea da funtsetako bat, baina tradizio idatzirik izan ez denean, sistemak garatzeko lehen pausoa ahozko tradizioa idatzira ekartzea izan da. Irlandako kasuan, esaterako, halaxe jazo da, eta gurean ere ez dugu ahazteko Alemaniako Herder famadunari jarraitu gintzaizkiola. Literatur sistemen eraikuntzatik arlo pertsonalagoetara igaroz gero, adierazkortasunaren garapenari ez eze afektibitatearenari ere onurak dakarziola ahozkotasunak, ahozkoaren barnean, zehazki haur hizkera erabiltzeari dagokionean, jakitun gara horretaz. Urteetan batzuek uste izan dute ume-berbeta erabiltzeak kalte egiten ziola umearen hizkuntza-jabekuntzari, baina kontrakoa frogatuta dago: haur hizkera erabilia, adierazkortasuna handitu egiten da, bai eta afektibitatea garatu ere, hizkera hori darabilenarekiko eta baita hizkuntzarekiko ere. Haurrak, gainera, berez-berez uzten dio haur hizkera erabiltzeari, mundu kontzeptuala zabaldu eta hizkuntza jarduna aberastu ahala. Ahozkotasuna sentimenduak lantzeko bide ere bada, hortaz.

Ahozkotasunaren garrantziaz jabetu garelarik, dagokigun gaira urreratuta, eta ahozkotasunaren transmisioari gagozkiolarik, badirudi, egungo bizimodua dela eta, berbetaren transmisio naturala neurri handi batean eten egin dela, eta ez dira gutxi oinarriko hezkuntza bukatu duten gazteen ahoz komunikatzeko gaitasun ezaz kexu diren hezitzaile eta profesionalak. Kanean zehar goazela leku zehatz bati buruzko jakingarriak eskatu eta adindun baten eta gazte baten erreferentzien adierazpenak aztertzea besterik ez dago: orotariko zehaztasunak emango dizkizu adindunak, azalpenak errepikatu egingo dizkizu, gorputz adierazpenak lagunduko du... gazteak, oster, "hor", "han", "ezker", "eskuin" eta zehaztapen gutxiren bat gehiago emango dizu (artean, bertakoa ez dela eta beste inorengana bidaltzen ez bazaitu). Ez da jakintza kontua, bi-biek ere leku hori non dagoen jakin arren, oso ezberdina da batek eta besteak jakingarriak emateko duen gaitasuna eta jakingarriak eskatzen dituenarekiko jarrera.

Orain arte, ikasgelara ekarri den hizkuntza eredia idatzia izan da gehienetan, jeneralean batuarena, eta ikasleak idatzizkoaren arauekin eta ezaugarriekin hezi izan dira, kon-tuan hartu gabe eredu idatzia eta ahozkoa kode ezberdinak direna. Gainera, askotan euskara batuaren izenean azpieuskalkien bariazioa eta aberastasuna ukatu izan dira.

Baina hitz egiten irakats eta ikas daitekeela gauza jakina da. Jendaurrean hitz egiten ikasten zuten erromatar jakintsuek eta denboran aurrerago eginda eta gugandik askoz ere parajeago, ezagun dira Suitzako ikerlariak abian jarritako proiektuak, arlo teorikotik ikasgeletara salto eginda daudelarik daborduko. Proiektuon oinarriaz aurrerago mintzatuko naizen aldetik, aipamen hutsean utziko dut hemen.

Hizkuntzaren irakaskuntzaren helburu nagusia honexek behar luke: ikasleak hizkuntza(k) erabiltzeko gaitasuna garatzea, ulermenean eta adierazpenean, ahaz zein idatziz. Ikasleak trebezia praktikoa, baliagarria, funtzionala behar du izan, batetik, eskolan ematen zaizkion irakaspenak behar bezala eskuratzeko (hizkuntzaren arlokoak zein beste arloetakoak); eta bestetik, eskolatik kanpoko komunikazio egoerei erantzuteko. Horretarako, hizkuntza idatzia lantzea bezain garrantzizkoa da ahazko hizkuntza lantzea. Indarrean dagoen hezkuntza curriculumean badira ahazketasunarekin lotutako edukiak, baina orokorrean hezkuntzaren emaitza urriak ikusita, Joserra Garziak bere azken lanean dioen moduan:

“Ahozketasuna lantzea ez da ohiko eskolak eman eta horrez gain tarteka-marteka ahaz jarduteko ekintzak antolatzea. Azken hori egitea hobe da noski, ezer ez egitea baino, baina ez da inola ere aski. (...) ahazko komunikazio gaitasuna hobetzeko bideak eta tresnak eskaini behar dizkie eskolak ikasleei”.

GARZIA, Joxerra (2008), *Jendaurrean hizlari*.
(Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua, Irun, Alberdania

Gure ustean, beharrezkoa da ereduarekin harremanetan egotea. Halatan ere, ikasleak berak generalizazio eta kontzeptualizazio egintzak garatu beharko ditu. Irakaskuntzaren zeregina erakitze prozesu horretan esku-hartze eta interbentzio egokiak bideratzea izango da. Izan ere, hitz egiten irakastea moldeak erakustea da, ez lehenengo hitz solteak, gero esaldi laburrak eta gero esaldi gero eta luzeagoak ikastea; zera lortu behar da: bere baitan zentzua duten eta haurra edo heldua bizi den inguru sozialean zentzua eta nolabaiteko moldea garatu duten hitz-egintzak menderatzea. Hortaz, batetik eredu egokiarekiko kontaktua dugu beharrezko, eta bestetik, eredu praktikan jartzeko ingurunea eta praktika bera.

Garrantzitsua da, halaber, ahazketasunerako jarrerak lantzea. Ezinezkoa da ahazketasuna garatzea ikasgelan hitz egiteagatik ikaslea kaleratu egiten den hezkuntza ingurune batean, non ahazkoak ez duen tarterik ikasgelan, edo ahazkoak irakaslearengan baino ez duen lekurik. Ahazkoaren garrantziaz ohartarazi behar dira ikasleak, ahazkoaren baliagarritasunaz, bai eta ahazko hizkuntza lantzeko beren-beregiko (g)uneak ekarri egungo sistemara, ahazkoa jolas garairako zein irakasleari galdera edo eskari hutsak egiteko soilik utzi gabe.

Ahazketasuna eskolatu gura den honetan, ez dezagun ahantzi, *ahazketasuna = bertsolaritza* adierazpena ere ez dela bere horretan egia (bertsolaritza irakasten dela eta ahazketasunarenak gairidituta behar dituzten ustekoak direnentzat diogu hau). Bertsolaritza lantzea guztiz egokia da ahazketasuna lantzeko, baina ez dugu hor garatu behar, bertsolaritza, ahazketasunaren parte txiki bat den heinean. Haratago joan behar dugu. Eta bide beretik, gogoratu: bertsolaritza idatziz lantzea alferrekoa da ahazketasuna bada landu gura dena. Ahazko edukiak ahaz landu behar diren ustea dugu.

Lehenago ere esana dugu eskola curriculumak ahozkotasanari lotutako edukiak eta helburuak biltzen dituela. Zer dakar zehazki? Bada, hona hemen:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren curriculum materialetan zehaztutakoaren arabera, Haur Hezkuntzan zehazten diren helburuak, ahozkotasanarekin lotuta, betiere, hauexek dira:

Komunikazioa eta aurkezpena atalean

I) Sentimenduak, ideiak eta beharrak ahoz adieraztea:

- Zuzen ahoskatuz.
- Erabiltzen dituzten esaldiak zuzen egituratuz.
- Ahozko ekoizpenak intonazio egokiz esanda.
- Beren ekoizpenetan erritmo dinamikoa edukita.

II) Ahoz jasotako mezuak ulertzea.

III) Gainerakoekin ahoz eta/edo gorputzez komunikatzea:

- Txandak errespetatuz.
- Elkarriketen gaia jarraituz.
- Gainerakoek kontatzen dutenarekiko interesa erakutsiz.
- Afektua erakutsiz eta gorputza erabiliz komunikazio hori zabaltzeko.

Lehen Hezkuntzan:

Ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hizkuntza-trebetasunak lantzea. Norberaren inguruko hiztunekiko jarrera ona lantzea. Hizkuntza jakin bat erabiltzea nortasuna garatzeko eta talde linguistiko eta kultura kolektiboan parte hartzeko.

Betetzen al da curriculumak zehaztua? Kexaz dira irakasleak, ikasleek oinarrizko hezkuntza bukatuta ez baitituzte ahozko gaitasunak menperatzen. Gauza jakina da ikasleek eguneroko elkarrekintzaren bidez ez dutela ia aukerarik konbentzio sozialek tinko egituratutako ahozko formak menderatzeko beharrezko diren gaitasunak garatzeko. Idatzizkoa zelan lantzen den eta ahozkoa zelan lantzen den ikustea besterik ez dago. Ahozkotasanari lotutako irakasgaiak oso orokorrak dira idatzizkoen aldean, eta eskola orduen kopuru txiki-txiki bat baino ez dute hartzen. Gogoan ditut gure hizkuntza-liburuetako "Gogoeta egin ikaskideekin gai honi edo hari, buruz" edo "Azaldu ondoko lagunari asteburuko plana" gisako jarduerak, baina inoiz ez genituen lantzen, ordea, ahozkotasunerako teknikak, adibidez. Idatzizkoan bai, espero ezin zitezkeen irakasgaiak ere han ziren.

Gure susmoa da eskolan ahozkotasuna lantzeko material egokia falta dela; edo mate-

riala egonik ere, oro har ahazko testuak jasotzen direla, buruz ikasteko edo ahazko testuok idatziz lantzeko, ikasleak ahazko komunikazioan trebatzeko baino gehiago. Oso ohikoa da, esate baterako, antzerki lan bat prestatzea edo herri-literaturako kantak ikastea ahazketasunaren izenean, baina betikoan gaude: ahazko komunikazioarekin lotutako oinarriko gaitasunik ez da lantzen, ez bada memoria garatzea edo bestelakoren bat.

Materialari ez eze, irakasleen trebakuntzari ere garrantzia eman behar zaio. Eze, esperientziak dioskunaren arabera: delako materiala norentzat da zaila, ikasleentzat ala irakasleentzat? Orain arte ahazko transmisioa lekuan lekuko hitzunen bidez egin da (gure aitona-amonak ume ziren sasoiak) eta oraingo umeak ez al dira ba kapaz lehenengo ahazko testuak ulertzeko? Gaitasun urriagokoak al dira ba? Ala irakasleei behar gehigarri bat planteatzen zaie? Irakasleek prest egon behar dute ez bakarrik ahazketasuna lantzeko material jakin bat erabiltzeko, ezpada euren komunikazioak irakatsi gura diren ereduon arabera eraikitzeko.

“Tokian tokiko hizkera aintzat hartu nahi duen proiektu baten, ezinbesteko elementua dira irakasleak. Proiektua gauzatuko bada, profesional horien prestakuntza, bai dialektala, bai erregistroaren ingurukoa, bai euskalkiaren aurrean erakusten duen jarrera eta sentsibilitatea, faktore eragingarriak dira”.


BARRIOS, M., BOAN, K., ELORZA, I. eta OSA, E. (2008), *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Bilbo, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa - Euskaltzaindia

Dena ezin zaio eskolari eskatu, ordea, eta gure kasuan, aurkeztutako materiala gurasoekin erabiltzeko modukoa ere bada.

Orain artean hiru produktu kaleratu ditugu ahazketasuna eskolan (edo etxean) lantzeko:

Zer Ikusi ha Ikasi! Uribe Kosta izeneko materiala izan da gure proiektu pilotua, nolabait. Uribe Kostako Mankomunitateko euskara zerbitzuaren eta Getxoko Udalaren eskariz egindako lana da. 0 urtetik 12 urtera artean erabiltzeko moduko materiala da, adin tarreetan banatuta, eta eskualdeko jakingarriak dakartzalarik lau arlo nagusitan banatuta: Natur ingurunea, Gizarte ingurunea, Zientzia eta teknologia eta Kultur Ondarea.

1 - IRUDIA
ZER IKUSI HA IKASI! URIBE KOSTA
HH eta LHrako eskualdeko material osagarria.



2 - IRUDIA
ZER IKUSI HA IKASI! URIBE KOSTA
HH eta LHrako eskualdeko material osagarria.



Zuztarretatik ahoa aurrekoaren antzeko materiala da, Nerbioi-Ibaizabal eskualdeetako udalerrietako gaztetxoentzat prestatua (bertako udalen ekimenez), euren eskualdeko jakingarriak biltzen dituen, betiere euren aitaita-amamen ahotik. Gaien tratamendua aurreko proiektuan egin legezkoa da.

3 - IRUDIA

ZUZTARRETATIK AHORA. NERBIOI-IBAIZABAL
HH eta LHRako eskualdeko material osagarria.



4 - IRUDIA

ZUZTARRETATIK AHORA. NERBIOI-IBAIZABAL
HH eta LHRako eskualdeko material osagarria.




Erandio lekuri leku izenburuko materiala, oster, gaiaren aldetik mugatuagoa da, eta eskualde baterako izan barik, herri bakar baterako prestatutako lana da. Herriko toponomia-ikerketa oinarrian hartuta, ikaslearen ingurune hurbila lantzeko jakingarriak bilzen ditu.

5 - IRUDIA
ERANDIO LEKURIK LEKU
LH eta DBH. Toponimia lantzeko unitate didaktikoak.



6 - IRUDIA
ERANDIO LEKURIK LEKU
LH eta DBH. Toponimia lantzeko unitate didaktikoak.



Gure proiektuak ahozketasunaren alorrean bide berri bat egin nahirik aurkezten ditugu. Noski, ez da ahozketasuna lantzeko eredurik behinena, baina bai gaur egungo hezkuntza ereduari lot dakioketena, aldaketak apurka sartuta, gerora, ahozketasuna bestela landu ahal izateko. Izan ere, ahozketasuna lantzen ez den sisteman ez dugu erabateko aldaketa egin gura, progresioan baizik. Gaur egun, Interakzionismo sozialean zuzturtutako testuetan oinarritutako didaktikaren bidea ikertzen ari dira hezkuntzan adituak (esperimentazio faserako unitate didaktikoren bat prest dute jadanik), eta ereduok ekarri artean, ahozko testuak lantzeko modu bat izan daiteke gure proposamena.

Interakzionismo soziala zer den, bada teoria horren arabera, ahozko mintzapraktikaren erakuntza erreferentziako mintzapraktikekin alderatuz egiten da nahitaez, mintzapraktiken erabileraren baitan, eta haien bidez helarazten diren esangura sozialak kontuan hartuz. Ahozkoaren jabeakuntza, beraz, erreferentziako praktika horiei lotuta aztertzen da eta praktika horiek definitzen dituzten erlazio sozial konplexuen sarearen barruan. Esan nahi baita, ikasleek eredu egoki bat oinarri hartuta, huraxe aztertu eta erreproduzitzen dutela, betiere eredu bakoitza gizarte testuinguru jakin bati lotzen zaiolarik; ikasleak berak erabaki beharko du eredu jakin bat (dela elkarrizketa, deskribapena, azalpena, bertsoa, dittoa, kanta...) zein egoeratan erreproduzitu behar duen, eta praktika egin ahala, ahozko komunikazioan trebatuko da. Praktikaldiaren osteko *feedback*-ari berebiziko garrantzia ematen dio teoria honek (gure kasuan, materiala prestatu bai, baina erabilerara eta *feedback* hori hezitzaileen esku geratzen da).

Eskualdez eskualdeko etnografia bilketaren ondorengo aplikazioetan du jatorria aurkezten dugun proposamenak. Etnografia jakintzaz gain, baliabide eta eredu linguistiko egokiak jaso ditzakete ikasleek, eta horretarako, baliabideok eta ereduok erabiltzeko alegia, herriarenak eta betiko euskaldunek erabiltzen dituztenak batu, ikertu eta sailkatu behar ditugu, era didaktikoan irakasle eta ikasleen esku jartzeko. Era horretan, behintzat, ikasleek erreferente egokiak eta zuzenak izango dituzte.

Honakoak dira gure proposamenaren ezaugarriak:

Unitate didaktikoak testuz, irudiz eta bideoz osatuta daude. Eta, zergatik bideoa eta ez audioa? Bada, begiak lehenago aktibatzen duelako burmuina, eta ahozketasunarekin lotutako gorputz adierazpena bideoan soilik jasotzen delako.

Materialean zehar xertatutako bideo txatalak unitate komunikatiboak dira, beti testuinguru jakin batean kokatuta daudenak. Esan nahi baita, ez dugu aurkituko errepikatzeko besterik ez ziren *"Open the window, close the door"* edo *"Je suis Natalie, j'habite en Italie"* gisako esaldirik. Ikasleek, bideoetan euren mailari dagozkien edukien berri izango dute, eta bideo unitateetako ahozko testuak harira datozen lekuen, objektuen zein pertsonen deskribapenak, kontakizun laburrak, azalpenak... izango dira.

Unitate didaktikoen antolaera gaur egungo hezkuntza sistemari lotutakoa da, baina ez dator ikasliburuak ordeztara, ezpada horiek osatzera. Hezkuntza sisteman lantzen

diren gaiak direlarik materialetan jasotakoak, irakasleak egoki deritzon, bertara jotzeko aukera izango du, gaiz aldatu beharrik gabe.

Unitate didaktikoak hezkuntza zikloen arabera antolatu dira. Hortaz, adin bakoitzeko ikasleek haientzat egoki diren idatzizko eta ahozko testuak jorratuko dituzte. Haur Hezkuntza etapan umearen garapenaren dimentsio denak olgetarekin lotuta daude: autonomia garatzea, harremanetarako arau sozialak eskuratzea... Hargatik, batu ditugun ahozko unitateak jolasarekin lotutakoak dira. Horrez gainera, hezitzaileak umearekin hitz egiteko baliagarri izan daitezkeen itemak ere jaso ditugu. Azken finean, hezi-tzailearen bitartez egingo da ahozko transmisioa. Lehen Hezkuntzako aldiaren, umeak, sentimendu eta funtzio korporalen inguruko ardurak lagata, kanpoko mundura zuzen-tzen du arreta. Hizkuntzaren jabetzearen gainean eraikitzen dira osteko ikasketa guztiak.

Bestalde, idatzizko ereduaren erabilera eskarara hurbiltzeko ahalegina egin da, kasu honetan idatzizkoa ahozkoaren zerbitzura jarrita. Horretarako, *Zenbait orientabide erregistroaren tratuaz* lana hartu dugu oinarritzat.

Materialeko aztertzea eta baliatzea da ezagutzeko modurik onena. Oraindik ez da praktikan jarri eskoletan, baina Josune Zabala, ahozkoaren erabilera ikerle eta aditua den Mintzola zuzendariak, *Zer ikusi ha ikasi. Material azterketari zenbait hitz* txostenean aipatuak ekarri nahi izan ditugu:

Edukia eta forma uztartzen ditu.

- *Hizkuntza lantzearekin batera, berezko duen jakintza garraiatzen dute ahozko testuek, eta hura lantzeko bide ematen da eskolan edo etxean.*

- *Hezkuntza-curriculumeko eskaerak erantzunez antolatu dira ikas eremuak.*

- *Ahozko zenbait genero zati agertzen dira: deskribapena, kontakizuna, kantua, esatera zaharrak... Eta horiek interesgarri dira ikuspegi soziokulturalerik jorra daitezkeen.*

- *Eredu errealek jaso dira. Ez dago moldaketarik ikus-entzunezkoetan. Hautatutako hiztunek euren ahozko jardun erreala dute. Elementu hau arrunt interesgarria da hizkuntzaren erabilera aztertzeko: erregistroak lantzeko, prosodiaren berri izateko, (...) hizketa moduei erreparatzeko...*

- *Hiztun errealek euren ingurune errealean agertzen dira: (...) Ideia hau garrantzizkoa da, hizkuntzaren erabilera egiaztasunaz gogoeta egitea garrantzizkoa.*

- *Errealitate hurbila erakusten da.*

- *Adinduek eredu. (...) aurrerapausoa da belaunaldi ezberdinen arteko inkomunikazio egoeran gauden honetan.*

Aipatu proiektuen xehetasunak eta ezaugarriak azaldu ditugunez gero, haietan murgilduta, ikasle, irakasle eta gurasoentzat baliagarriak eta gustukoak izan daitezten gura genuke. Oxala hala balitz! Hori litzateke gure poza, eta ahazketasunarena.

BIBLIOGRAFIA

Barrios, M., Boan, K., Elorza, I. eta Osa, E. 2008, *Zenbait orientabide erregistroen traktatuz*, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa – Euskaltzaindia, Bilbo.

Bilbao, B., Gaminde, I., Ezkurdia, G. eta Perez, K. 2008, *Eskolarako material lantegia*, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.

Garzia, J. 2008, *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*, Alberdania, Irun.

Idiazabal, I. 2008, «*Gramatika eta hizkuntzaren didaktika*» in *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*, Julio Urkixo Filologia Mintegiaren Urtekariaren gehigarriak (2008), 413-432.

Garcia, I eta Idiazabal, I. *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena: <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza> / azken kontsulta: 2010-09-08 /